

Euskal Administrazioen gastu arrunta %6,6 hazi zen 2005ean, 2004an baino puntu bat gutxiago


Finantza-zor bizia BPGaren %6,2an kokatu zen

2005eko ekitaldian, Euskal Administrazioen (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udal Administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gairik erakundeekin batera) gastu arruntak %6,6 hazi ziren, Eustatek emandako datuen arabera. Gastu arrunta 10.186,3 milioi euro izan zen; sarrera arruntak 12.726 milioi izan ziren, urteko hazkunde tasa, 2004aren aldean, %9,9 izan zelarik.

Aurreko elementuen bilakaeratik ondorioztatzen da eragiketa arrunten saldoa (sarrera arruntak ken gastu arruntak) 2.539,8 milioi izan zela, aurreko urtean baino %25,0 gehiago, 2.032,2 izan baitzen.

Zerga sarrerek –sarrera arrunt guztien %90 baino gehiago- %13ko aldakuntza positiboa izan zuten. Haien artean Sozietateen Zergatik eratorritakoek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena, %26,2.

Euskal administrazioen zerga sarreraren banaketa. 2005 urtea.



Iturria: EUSTAT

BEZak %14,2ko hazkundera izan zuen eta PFEZak %11,4koa. Udal zergen hazkundera txikiagoa izan zen, %6,7, eta baita Zerga bereziena ere, %4,3.

Gastu arruntaren atalen artean hazkunderik handiena Transferentzia Arruntena (itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak) izan zen, %7,2; eta hazkunderik txikiena Pertsonal gastuetan, %5,8. Beste gastu arruntek (funtzionamendu gastuak) erdi mailako bilakaera izan zuten, %6,6. Oro har, gastu arruntaren hazkundera %6,6koa izan zen; kontuan hartuz sarrera arruntaren hazkundera handiagoa izan zela (%9,9), azkenean 2005ean eragiketa arruntaren saldoan %25eko hazkundera dugu.

Eragiketa arruntaren saldotik aurrekontu saldo ez finantzarioa pasatzeko, kapital eragiketen sarrera eta gastuak kontabilizatu behar dira. 2005ean kapitalaren sarrerek %48,3ko hazkundera izan zuten, eta kapital gastuek (inbertsio errealek gehi kapital transferentziak) hazkundera txikiagoa izan zuten, %3,1, baina positiboa; izan ere, aurreko urtean jaitsi egin ziren (%-1,8). Ondorioz, aurrekontu saldo ez finantzarioa 937,1 milioikoa izan zen, 2004an baino 571,4 milioi gehiago.

Euskal Administrazioen likidazio finkatua. 2005-2004

mila euro	2.004	2.005	Δ %
SARRERAK GUZTIRA	12.442.799	13.615.119	9,4 %
Eragiketa Arruntak	11.584.487	12.726.379	9,9 %
-Zerga Sarrerak	10.382.350	11.734.499	13,0 %
PFEZ	3.091.369	3.443.850	11,4 %
Sozietate-zerga	1.148.605	1.449.546	26,2 %
BEZ	3.675.433	4.196.628	14,2 %
Zerga Bereziak	1.344.756	1.402.078	4,3 %
Udal-zergak	517.250	551.904	6,7 %
Bestelako Zergak	604.937	690.493	14,1 %
-Bestelako sarrera arruntak	1.202.137	991.880	-17,5 %
Kapital-eragiketak	256.323	380.252	48,3 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	11.840.810	13.106.631	10,7 %
Finantza-eragiketak	601.989	508.488	-15,5 %
GASTUAK GUZTIRA	12.093.699	12.809.913	5,9 %
Eragiketa Arruntak	9.552.250	10.186.569	6,6 %
Langileria Gastuak	2.518.879	2.664.596	5,8 %
Transferentzia Arruntak	3.638.877	3.901.873	7,2 %
Bestelako Gastu Arruntak	3.394.494	3.620.100	6,6 %
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.922.833	1.982.934	3,1 %
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	11.475.083	12.169.503	6,1 %
Finantza-eragiketak	618.616	640.410	3,5 %
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.032.237	2.539.810	25,0 %
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANZARIOA	365.727	937.128	156,2 %

Iturria: EUSTAT

2005ean Euskal Administrazioen zor bizia 3.596,5 milioi euro izan zen, 2004an baino %3,3 gehiago. Azken urtean amortizatu beharreko zorretik 371,6 amortizatu ziren, baina 487,6ko zor berriak egin ziren eta azkenean amortizatu beharreko zorra handitu egin zen; handitze hau, halere, aurreko urtekoa -%4,4- baino txikiagoa izan zen.

Halaber, Euskal Administrazioen BPGarekiko finantza zorra jaitsi egin zen: %6,56 2004an eta %6,25 2005ean.

Euskal Administrazioen datu finkatuak. 2005. urtea

	mila euro				
	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	12.726.379	7.396.815	2.146.042	6.505.403	4.126.667
GASTU ARRUNTAK	10.186.569	6.086.556	1.961.895	5.913.181	3.673.485
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	2.539.810	1.310.259	184.147	592.222	453.182
KAPITAL SARRERAK	380.252	71.789	67.708	206.461	180.132
KAPITAL GASTUAK	1.982.934	842.437	149.962	640.843	495.530
AURREKONTU-SALDO EZ- FINANTZARIOA	937.128	539.611	101.893	157.840	137.784
ZOR BIZIA					
(Amortizatzeke05-12-31)	3.596.556	2.033.467	135.732	1.041.832	385.525

Iturria: EUSTAT

Euskal Administrazioen zerbitzuko pertsonak 95.388 ziren 2005ean; haien artean, %67,03 erkidegoko administrazio orokorrekoak ziren; %9,95 foru administrazioetan ari ziren eta gainerako %23,02 administrazio lokaletan. %81,3k lan harreman finkoa zuen.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose M^a Agirre Eskizabel

Tlf:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es